

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

- ✓ Ekonomiaren hazkunde txikiagoa
- ✓ Nazioarteko finantza-krisiaren azterketa
- ✓ Enpleguaren bilakaera egonkorra
- ✓ Prezioek goraka jarraitzen dute
- ✓ Lan-errentek pisua galtzen segitzen dute aberastasunaren banaketan

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	ERREFERENTZIA TARTEA		12 HILE LEHEN.	2007 BUKAERA
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA				
JARDUERA TASA (%)	2008ko III. HIRUHILEKOA	74,8	73,1	73,5
JARDUERA TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2008ko II. HIRUHILEKOA	70,9	70,4	70,6
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	2008ko III. HIRUHILEKOA	1.289.500	1.269.500	1.282.300
SOLDATAPEKO BIZTANLERIA	2008ko III. HIRUHILEKOA	1.048.100	1.018.200	1.035.900
ALDI BATERAKO TASA (%)	2008ko III. HIRUHILEKOA	26,9	27,9	28,2
ALDI BATERAKO TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2008ko II. HIRUHILEKOA	14,1	14,5	14,5
BIZTANLERIA LANGABETUA	2008ko III. HIRUHILEKOA	83.600	77.000	73.700
LANGABEZI TASA (%)	2008ko III. HIRUHILEKOA	6,1	5,7	5,4
LANGABEZI TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2008ko II. HIRUHILEKOA	6,9	7,1	6,9
GAZTEEN LANGABEZI-TASA (%)	2008ko III. HIRUHILEKOA	18,7	14,7	15,2
GAZTEEN LANGABEZI-TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2008ko II. HIRUHILEKOA	15,1	15,3	14,8
EMAKUMEEN LANGABEZI-TASA (%)	2008ko III. HIRUHILEKOA	7,2	7,6	7,0
EMAKUMEEN LANGABEZI-TASA 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2008ko II. HIRUHILEKOA	7,4	7,8	7,7
SINATURIKO KONTRATUAK	2008ko URTARRILA-URRIA	916.433	946.796	1.121.729
MUGAGABEKO KONTRATUAK	2008ko URTARRILA-URRIA	85.677	89.209	104.633
ENPLEGU ERREGULAZIOA				
ONARTURIKO FITXAK	2008ko URTARRILA-ABUZTUA	259	318	509
ERAGINDAKO LANGILEAK	2008ko URTARRILA-ABUZTUA	4.123	5.236	8.634
LAN ISTRIPUAK				
ISTRIPUAK GUZTIRA	2008ko URTARRILA-EKAINA	32.543	30.528	128.557
HILDAKOAK	2008ko URTARRILA-EKAINA	53	67	108
ESKAINZA ETA ESKARIA				
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (% ALD.)	2008ko URTARRILA-IRAILA	-0,3	3,6	2,8
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn (% ALD.)	2008ko URTARRILA-EKAINA	0,1	2,5	2,0
BPGa EAEn (% ALD.)	2008ko II. HIRUHILEKOA	2,6	4,3	3,6
BPGa NAFARROAn (% ALD.)	2008ko II. HIRUHILEKOA	2,5	4,0	3,4
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	2008ko II. HIRUHILEKOA	1,8	3,9	3,3
BPGa 27-EUOPAR BATASUNEAN (% ALD.)	2008ko II. HIRUHILEKOA	1,6	2,9	2,5
PREZIOAK				
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (%)	2008ko IRAILA	4,5	2,7	4,2
KPI 27-EUOPAR BATASUNEAN (%)	2008ko IRAILA	4,2	2,3	3,2
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.				
* Enplegu eta langabeziko datuak, 16 eta 65 urte bitarteko pertsonen buruzkoak dira. Bestela adin tartea zehaztuko da.				
Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea (NEE), Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística.				
2008/11/12an eguneraturiko informazioarekin				
111. zbk. Egoeraren Azterketa 2008ko Azaroa				



Aurkibidea

SARRERA	3
EGOERA SOZIAL ETA EKONOMIKOAREN AZTERKETA	4
1. Ekonomiaren hazkunde txikiagoa	4
2. Nazioarteko finantza-krisiaren azterketa.....	5
3. Enpleguaren bilakaera urteko hirugarren hiruhilekoan	5
4. Prezioek goraka jarraitzen dute ...	6
PUNTAKO GAIA	8
Errentaren banaketa.....	8
Ondorioak.....	10

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoeraren Azterketa honetan, Hego Euskal Herrian (HEH) jazotzen ari den hazkunde ekonomiko txikiagoa egiaztatu ez ezik, nazioarteko krisi finantzarioaren zioetan sakontzen saiatuko gara. Halaber, enpleguak urteko hirugarren hiruhilabetean izan duen bilakaera eta bai prezioen bai euriborraren goranzko joera ere aztertuko ditugu.

Zenbaki honetako Puntako Gaietan, berariaz erreparatuko diogu lan-errentek aberastasunaren banaketan jasaten ari diren pisu galerari.

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produkzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEE	Nafarroako Estatistika Erakundea
EIN	Estatistika Institutu Nazionala

* Txosten hau 2008ko azaroaren 12an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

Gizarte eta ekonomia egoeraren azterketa

1. Ekonomiaren hazkunde txikiagoa

HEHko ekonomiari ez zaio arrotz fase ekonomiko berria, eta, horren ondorioz, ekonomia motelago hazten ari da, lehenagoko beste aldi batzuekin alderatuta.

Ekonomiaren hazkunde txikiagoa argi agertzen dute Barne Produktu Gordinari (BPG) buruzko datuek. Zehazki, Nafarroako BPGa %2,5 hazi zen, termino errealetan, 2008ko bigarren hiruhilekoan, hots, 12 hilabete lehenago baino

1,5 puntu gutxiago. Joera hori EAEkoaren berdintsua da, bertako BPGak %2,6ko gehikuntza izan baitzuen aurtengo bigarren hiruhilekoan, urtebete lehenagoko %4,3ko hazkundearen aldean.

BPGak 2006tik aurrera izan duen bilakaera **sektoreka** aztertzean, eraikuntza sektorearen erritmo motelagoa da daturik deigarriena. Izan ere, sektore horretako BPGa, 2006ko bigarren hiruhilekoan, EAEn %4,4koa eta Nafarroan %4,9koa izatetik 2008ko epealdi bereko %1,1era eta %2,4ra igaro da eta, ondoz ondo.

BPGaren URTEARTEKO GEHIKUNTZA SEKTOREZ SEKTORE. NAFARROA ETA EAE (2006-2008)

	2006				2007				2008	
	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II
EAE										
Nekazaritza	-11,0	-2,8	-2,4	0,1	9,8	15,5	-0,2	14,9	5,3	-0,2
Industria	5,2	3,3	3,9	4,3	5,3	4,8	3,9	2,2	1,8	1,4
Eraikuntza	3,9	4,4	4,2	4,1	5,3	5,0	4,9	3,3	2,4	1,1
Zerbitzuak	4,3	4,5	4,6	4,6	4,2	4,0	4,1	4,6	3,6	3,4
BPGa, GUZTIRA	4,6	4,2	4,3	4,3	4,5	4,3	4,0	3,8	3,1	2,6

	2006				2007				2008	
	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II
NAFARROA										
Nekazaritza	0,7	0,6	0,4	0,4	0,5	0,6	0,7	0,9	1,1	2,3
Industria	1,7	1,9	2,4	3,2	3,2	2,4	1,8	0,8	1,1	1,5
Eraikuntza	4,9	4,9	5,3	5,4	5,6	5,7	5,6	5,2	4,3	2,4
Zerbitzuak	4,6	4,5	4,5	4,4	4,6	4,7	4,6	4,3	3,9	3,1
BPGa, GUZTIRA	3,7	3,8	4,0	4,1	4,2	4,0	3,8	3,4	3,0	2,5

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua eta Eustat

2006ko bigarren hiruhilekoaren eta aurtengo aldi berorren arteko eraketari eutsiz, nekazaritza 2006an baino bi puntu gehiago hazi dela ikus dezakegu: EAEn %-2,8tik %-0,2ra eta Nafarroan %0,6tik %2,3ra, hain zuzen ere. Industria sektoreari dagokionez, bitxia suertatzen da EAEko bilakaera, %3,3ko gehikuntzatik %1,4kora igaro baita, Nafarroako zifrek lehenago antzera iraun dutelarik (%1,9ko hazkundera 2006ko bigarren hiruhilekoan, eta %1,5ekoa, 2008ko bigarren hiruhilekoan. Azkenik, zerbitzuen sektoreak ere igarri du dezelerazioa, bai

EAEn (bi urteotan, %4,5etik %3,4ra jaitsi da), bai Nafarroan (%4,5etik %3,1era).

Bestalde, HEHko jarduera industrialaren analisiak erakusten duenez, Nafarroako jarduera industrialaren indizea 2007ko lehenengo sei hilabeteetan %2,5 haztetik 2008ko epealdi berean %0,1 haztera pasatu da. Antzeko joera ageri da EAEn ere, bertako jarduera industrialaren indizea %0,3 txikiagotu baitzen urtarrietik abuztura, iazko epealdi berean %6ko handitzearen aldean.



2. Nazioarteko finantza-krisiaren azterketa

Azken asteetan, gertaera garrantzitsuak jazo dira nazioarteko finantza-krisiaren inguruan. Azterketa honen xedea ez da gertaera nabarmengarrienen berri ematea, zenbait ondorio ateratzen saiatzea baizik:

- Krisiaren eragileak espekulazioa eta merkatuaren desarautzea izan dira: Finantza-merkatuak gaur egun duen egoera espekulazioaren garapen itzelak (inork ulertzen ez bide dituen finantza-aktiboen espekulazioarenak, oraingoan) sustatu duen diru-goseak eragin du, eta hori, halaber, estatuetako gobernuek erabakitako merkatu liberalizazio eta desarautze hazkorrei egotzi behar zaie guztiz.
- Egoera honen arrazoiek ez dute zerikusirik ez soldatekin, ez gizarte-gastuarekin, ez zergen presioarekin: Abagunea aprobetxatuz, baten batzuk berriro betiko pairatzaileen gerrikoa estutu nahian dabiltzan arren, argi dago oraingo egoeraren arrazoia ez direla ez soldaten igoera handiak, ez gizarte-gastua, ez zergak; beraz, soldatak edo/eta gizarte-gastua doitzeak, zergak urritzeak eta behin eta berriz aipatzen diren antzeko errezetek ez lituzkete oraingo arazoak konponduko.
- Merkatu librearen mitoaren amaiera: Azken urteetan erabili diren politika ekonomikoen oinarria merkatu libreko arazo guztiak arteztuko zituela sinestarazi nahi izan digun ideologia izan da. Merkatu libreko, gizarte-desorekak areagotzeaz eta sektore pribatua –publikoaren kaltetan– inoiz ez bezala hedatzeaz gain, oraingo krisi finantzarioa ere ekarri du. Krisiaren aurrean, esku-hartze publikoa –hau da, dirutza itzelak bideratzea– omen da irtenbide bakarra. Eskaintza-eskarien amarruaren porrotetik ondorioak ateratzeko eta sistema kapitalista azken 20 urteotan gidatu duten parametroak errotoaldatzeko unea heldu da.
- Arazoa sortu dutenei zergapekoen dirua oparitu ala sistema aldatu?: Une honetan, honako bi aukera hauek daude: gobernuek arazoa sortu dutenei dirutza ematea, besterik gabe (CEOeko buruak dioenez, "kapitalismoan eternaldi bat egitea", ondoren denak berdindarritu dezan), edo, aitzitik, gizarte-eskubi-

deen arauketa, elkartasunaren, justiziaren eta berdintasunaren lehenespena eta sektore publikoari guztion interesen arautzaile eta bermatzaile gisa dagokion eginkizunaren defentsa ekarriko dituen sistema-aldaketa gertatzea.

- Arazoak jabetu eta borrokatu beharra: Sindikalismoak une honetan jazotzen ari denaren gaineko ondorioztapenak egin behar ditu. Geure irakurketa egin, eta egoeraren arrazoiez jabeaz behar dugu langileria, enpresetan oraino marjina handia dagoela, politikak aldatu ahal direla eta horretarako bide bakarra antolatzea eta mobilizatzea dela ohartaraziz.

Lehen aipatutako ekonomi hazkunde txikiago baten bitartez nabarmentzen ari da krisi finantzarioa ekonomia errealean. Hirugarren hiru hilabeteetako eman diren datuek, aurreko hilabeteetako baino hazkunde txikiagoa aurkezten dute (Espainiar estatuan BPGa %0,9 hazi da), etorkizunean gertatu daitekeena zalantzarik jarritz.

3. Enpleguaren bilakaera urteko hirugarren hiruhilekoan

Enpleguaren bilakaerari dagokionez, urteko hirugarren hiruhilekoari buruzko datuek ez dute oso gorabehera esanguratsurik agertzen. Geroago ikusiko dugun moduan, langabeziatasak nolabaiteko gehikuntza izan badu ere, enplegua sortzen jarraitu da, bai landunen, bai soldatapekoen kopurua hazi egin dira eta.

HEHko **jarduera-tasa** (lana baduten edo bila dabiltzan biztanleen portzentaia) 8 hamarren igo da hirugarren hiruhilekoan (%74tik %74,8ra). Hego Euskal Herriko jarduera-tasa 27 estatu kideek osaturiko Europar Batasuneko (27-EBkoa) baino altuagoa da, 2008ko bigarren hiruhilekoan %70,9an jarri zenez gero (horixe da daukagun azken datua).

Biztanleria aktiboa 13.600 lagunetan hazi da; horrexek azaltzen du urteko hirugarren hiruhilekoan bai langabeak, bai lanean dabiltzanak ugaritu izana. Zehazki, landunen zerrendari 800 pertsona gehitu zaizkio (1.288.700etik 1.289.500era); berez, emakumezko landunen

kopurua handitu da (9.000 gehiago), gizonezkoena urritu egin delarik (8.200 gutxiago).

Sektoreei erreparatuta, 835.300 langile aritu dira zerbitzuetan, 317.900 (%24,5) industrian, 115.200 (%8,9) eraikuntzan, eta 28.600 (%2,2) nekazaritzan, abelazkuntzan eta arrantzan. Sektore guztietan hazi da landunen kopurua, eraikuntzan izan ezik, horretan 8.800 lanpostu galdu dira eta.

Bestalde, **soldatapeko biztanleriari** 3.800 lagun batu zaizkio hiruhilekoan zehar (1.044.300 izatetik 1.048.100 izatera).

ENPLEGUAREN ADIERAZLEAK. HEGO EUSKAL HERRIA. 2008ko II-III. HIRUHILEKOAK

	2008ko II.a	2008ko III.a
Jarduera-tasa	%74,0	%74,8
Biztanleria aktiboa	1.365.100	1.378.700
Landunak	1.288.700	1.289.500
Soldatapekoak	1.044.300	1.048.100
Langabezia-tasa	%5,6	%6,1
Gazteen langabezia-tasa	%19,2	%18,7
Langabeak	76.400	83.600
Behin-behinekotasun tasa	%27,4	%26,9
Gazteen behin-behinekotasun tasa	%66,5	%71,5

Iturria: Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta

Langabeen kopurua ere handitu da, 12.000 laguneko gehikuntzaz: 76.400 lagunetik 83.600era, hain zuzen ere. Langabeen kopuruaren ugartze horrek isla izan du langabezia-tasan, 8 hamarren igo baita. Era horretan, 2008ko hirugarren hiruhileko langabezia-tasa %6,1ekoa izan da, bigarren hiruhileko %5,6koaren aldean. Ildo berean aipatu behar da 27-EBko langabezia-tasa %6,9koa izan dela 2008ko hirugarren hiruhilekoan.

HEHko **behin-behinekotasun tasa** %26,9koa izan da, hiruhilekoan zehar puntu erdia jaitsita. Jaitsiera hori ez da nabarmengarria, datuek erakusten dutenez 2004tik aurrera %27aren eta %29aren artean ibili baita, hiruhileko batzuetan zertxobait gorago edo beherago egonik ere. Behin-behinekotasunaren urritzea, zalan-tza barik, aldi baterako lanpostuen galerarekin dago loturik.

HEHko behin-behinekotasuna Europakoa hala-ko bi da ia, 27-EBko tasa bigarren hiruhilekoan

%14,2koa izan delarik. Behin-behinekotasun itzela gure lan-merkatuaren ezegonkortasunaren agerbideetako bat da.

Hego Euskal Herriko gazteriaren behin-behinekotasun tasa (%71,5) behin-behinekotasun tasa orokorra (%26,9) baino askoz altuagoa da.

Behin-behinekotasunarekin loturik esan behar da urrira bitarte 916.433 **lan-kontratu** sinatu direla, hau da, iazko aldi berean baino 30.363 gutxiago. Sinatutako horietatik, 85.677 baino ez dira mugagabeak izan, alegia, 2007an baino 3.532 gutxiago. Era horretan, aldi baterako kontratuen portzentajea pixka bat handitu da, %90,7era iritsiz, iazko ekitaldiko %90,6aren aldean.

Ekonomiaren hazkunde txikiagoaren ondorio latzenak lan-ezegonkortasun handiagoa jasaten duten biztanleek nozitzen dituzte, eta, halaber, beroriek dira zaugarrienak ziklo ekonomiko berriaren beste ondorio batzuekiko, hala nola KPIaren eta Euribor tasaren gehikuntzarekiko, besteak beste.

Datu ofizialen arabera, urtarriletik abuztura bitarte **enplegua erregulatzeko** 259 **espediente-fitxa** baimendu dira; iazko aldi berean baino 59 gutxiago (318 espediente baimendu ziren), hain zuzen. Fitxa horien ondorioak 4.123 langilek jasan zituzten, iazkoan baino 1.113 gutxiagok, zehazki.

Bai EAEn, bai Nafarroan, bilakaera hori irailan ere gertatu zela esan dute Gobernuak. Azken asteetan, enpresek aurkeztutako espedienteak ugaritu egin dira, eta kasu askotan, zentzuzko arrazoirik gabe, gainera. Ildo horretan, zentzuzko arrazoi barik erregulazio-fitxarik ez baimentzeko galdatau behar zaio administrazioari.

Espedienteen bilakaera gorabehera, gizarte-segurantzari buruzko datuek adierazten dute-nez, urrian 3.769 biztanle gehiagok **kotizatu** zuten (25 gehiagok Nafarroan, eta gainontze-koek, EAEn).

4. Prezioek goraka jarraitzen dute


Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) urte-arte-ko tasa %3,6koa izan da urrian, iazko hil berean erregistratutako zifra berdina. Dena



den, prezioak nabarmen gehiago hazi izan dira urrira arteko hilabeteetan.

Espainiako Estatuko inflazioa Europakoa baino handiagoa izan da irailerarte, 2008ko irailean Europar Batasuneko KPIa %4,2koa izan delarik, eta Estatukoa %4,5koa. EBeko KPIa urrian zenbatekoa den ikasi beharko da.

KPIaren URTEARTEKO GEHIKUNTZAK (%). ESPAINIAKO ESTATUA. 2008ko URTARRILA-URRIA



Iturria: Estadística Instituto Nacionala

Datuok agerian uzten dute soldatek, negozioziko kolektiboan, aurreko urtealdiko KPIaren arabera hazi behar dutela, aurreikusitako inflazioaren arabera barik.

Oinarrizko elikagaien prezioen igoera espekulazio-jite nabariko prozesu baten ondorioa da. Kontrakoa esaten bada ere, datuek argi uzten dute jendearentzako salmenta-prezioen igoera askoz handiagoa dela ekoizleen prezioen igoera baino. Hortaz, bitarteko enpresek euren mozkinak kontsumitzaileen bizkar ugaritzeko darabilten estrategiari erantzuten dio prezioen igoerak.


Prezio-igoeraren arrazoi nagusia ogiaren, esnearen eta oinarrizko beste janari batzuen garestitzea da. Ondorioz, aurreko atalean esan dugunez, prezioen igoera familien eskuratze-ahalean ari da bereziki hautematen, eta baliabide gutxiak dituztenek nozitzen dute nabarmenen.

Bestalde, euriborraren, hau da, hipotekak kalkulatzeko adierazlerik erabilienaren, bilakaerari dagokionez, bere hazkunde bizia azpimarratu behar da. Izan ere, 2006ko urtarrilean, euribor

tasa %2,8koa zen, eta aurtengo urrian, berriz, %5,2koa.

Euribor tasaren igoera horren eraginez, 25 urtean ordaintzeko 150.000 euroko hipoteka duenak, 210 euro gehiago ordaindu beharko ditu hilean, eta 40 urtetarako hipoteka duenak, 237 euro gehiago hilabeteke.

EURIBOR TASA. 2006ko URTARRILA- 2008ko IRAILA



Iturria: Euriborra web orria

Beraz, ekonomiaren hazkunde txikiagoari aurre egiteko politiken xedek premia larrienak dituzten biztanleria-alorrak babestea izan behar du, errentarik handien alde jokatzen segitu beharrean.

Errentaren banaketa

Hego Euskal Herriko ekonomian sortzen den errenta gero eta handiagoa izan arren, aberastasun horren banaketa, hala ere, ez da berdin banatzen herritarren artean edo gizarte-klaseen artean. Beharrezkoa da aztertzea zer gertatzen den lanaren errentekin, batetik, eta enpresaburuen eta kapitalaren errentekin, bestetik. Eta azterketa hori egiteko, argitaratu berri diren 2007ko datuak erabiliko ditugu, bai EAEkoak, bai Nafarroakoak.

EAEko errenta-banaketa:

EAEan, 2007an, BPGak %6,7 egin zuen gora termino nominaletan. Horren barruan, ustiapeneko soberakin gordinak %7,5 egin zuen gora; eta lanaren errentek, ordea, %6,8. Zerga garbiak %3,5 igo ziren.

Horiek horrela, aurreko urtean, 2006an, EAEan sorturiko 100 eurotatik 48,22 soldatapeko langileak ordaintzera joan baziren, 2007an portzentaia hori antzera geratu da (48,26). Aitzitik, ustiapeneko soberakin gordina askoz gehiago igo da, eta BPGean 0,3 puntu gora joan da (2006ko %40,48tik 2007ko %40,88ra). Horrek esan nahi du ustiapeneko soberakin gordina 199 milioi euro hazi dela.

SOLDATAPEKO LANGILEEN ORDAINSARIAK ETA USTIAPENeko SOBERAKIN GORDINA (BPG %). EAE, 2006-2007


	2006	2007
Soldatapeko langileen ordaina	48,22	48,26
Ustiapeneko soberakin gordina	40,58	40,88

Iturria: Eustat

Hazkunde ekonomikoaren aldia (1993-2007) aztertuz gero, berehala konturatuko gara enpresaburuen eta kapitalaren errentei, batez ere, izan zaiela onuragarri EAEan ongialdia (ustiapeneko soberakin gordina), soldatapeko-

en ordainaren kaltetan (langileei doakien aberastasunaren zatia).

SOLDATAPEKO LANGILEEN ORDAINSARIAK ETA USTIAPENeko SOBERAKIN GORDINA (BPG %). EAE, 1993-2007



Iturria: Eustat

Hazkundera hasi zenetik (1993) lanaren errentek BPGean duten partehartzea beheraka joan da, nabarmen eta etengabe. Zehazkiago, soldatapekoen ordaina 1993an BPGaren %52,3 izatetik %48,3 izatera jaitsi da, 2007an.

Lanaren errentek lau puntu horiek galdu izanak bi ondorio dakar:

- Lanaren errenten partehartzea 2007an 1993koa bezalakoa izanez gero, iaz lanaren errentek benetan batu zutenaz gain 2.637 milioi euro gehiago batuko zuten.
- Soldatapeko langile bakoitza, aberastasuna banatzeko bilakaeraren ondorioz, 3.256 euro urtean galtzen ari da batz bestez.

LANAREN ERRENTEN GALERA. EAE, 1993-2006

Lanaren errentak, guztira	2.637 milioi euro
Soldatapeko langile bakoitzeko	3.256 euro

Iturria: Eustat

Lanaren errentek BPGean galdu dutena ustiapeneko soberakin gordinak gehitu du. Izan ere, 1993an ustiapeneko soberakin gordinak BPGean zuen portzentaia %38,7 zen, eta 2007an %40,9.

Nafarroako errenta-banaketa:

Nafarroako BPG 1.315,3 milioi euro hazi da 2006tik 2007ra (17.113,3 milioi eurotik



18.428,5era), horrek esan nahi du %3,8ko gehikuntza netoa gertatu dela. Dena dela, errentaren banaketa aldatu da, soldatapeko langileen kaltetan.

2006an soldatapekoen ordaina BPGaren %45,53 zen, eta 2007an partehartze hori jaitsi da %44,74ra. Hori bera diruz esanda, 146,7 milioi euro gutxiago da.

Ustiapeneko soberakin gordinak kontrako joera izan du: 2006ko partehartzea %42,38 izan zen, eta 2007an %43,33. Horrek adierazten du 173,4 milioi euroko gehikuntza gertatu dela 2006ko partehartzearekiko.

SOLDATAPEKO LANGILEEN ORDAINSARIAK ETA USTIAPENENKO SOBERAKIN GORDINA (BPG %). NAFARROA, 2006-2007


	2006	2007
Soldatapeko langileen ordaina	45,53	44,74
Ustiapeneko soberakin gordina:	42,38	43,33

Iturria: IEN

Errentaren banaketaren bilakaera hori ekonomiaren epealdiaren ikuspegitik aztertu beharra dago. 1993. urteaz geroztik hazkunde ekonomiko etengabea izan dugu. Beheragoko taulan errentaren banaketaren bilakaera islatzen da, 2000. urtetik hona, ez baitugu lehenagoko informazio homogeneorik.

Nolanahi ere, oraintsu arteko ongialdi ekonomiko osoan errentaren banaketak hartu duen bilakaeran argiro ikus daiteke soldatapeko langileen partehartzea beheraka joan den bitartean, ustiapeneko soberakin gordina goraka joan dela, sorturiko aberastasunaren gero eta zati handiagoa hartuz.

SOLDATAPEKO LANGILEEN ORDAINSARIAK ETA USTIAPENENKO SOBERAKIN GORDINA (BPG %). NAFARROA, 2000-2007



Iturria: IEN

Soldatapeko langileen ordaina 2000an BPGaren %47 izan zen, eta 2007an %44,74.

Errentaren banaketan gertatu den galera, eurotan, honela zehaztu dezakegu: soldatapeko langileek 417,7 milioi euro irabazi gabe utzi dute 2000tik 2007ra. Bestela esanda, 2000tik hona soldatapeko langile bakoitzak, urtean eta batz bestez, 1.800 euro gehiago irabazi beharko zuten, baina ez du irabazi.

LANAREN ERRENTEN GALERA. NAFARROA, 2000-2007

Lanaren errentak, guztira	417,7 milioi euro
Soldatapeko langile bakoitzeko	1.800 euro

Iturria: IEN

Ustiapeneko soberakin gordina apur batez igo da, zeren 2000an BPGaren %43,03 hartzen zuten, eta 2007an %43,33.

Ondorioak:

Errentaren banaketa irregularra politika neoliberalen ondorioetako bat da. Sistema ekonomiko neoliberalak desberdintasun sozialak dakartzatza bere baitan.

Desberdintasun horiek neurtzeko adierazle bat errentaren banaketaren bilakaera da. Horrek ematen digu aditzera BPGaren zenbat geratzen den soldatapekoen eskutan, eta zenbat doan ustiapeneko soberakin gordinera (enpresaburuen eta kapitalaren diru-sarrerak).

Kontuan izan behar dugu azken epealdi horretan hazkunde ekonomiko nabarmena izan dela BPGean. Beraz, bai enpresaburuen diru-sarrerak, bai soldatapekoenak igo dira kopuruz; hau da, orain gehiago irabazten dute biek ala biek. Horrek, hala ere, ez du esan nahi denen irabaziak BPGaren parean hazi direnik edo bestela esanda, denen irabaziak neurri berean igo direnik.

Ondo agerian geratu denez, errentaren banaketa okertuz doa Hego Euskal Herri osoan, eta

horrela, soldatapeko langileen partehartzea BPGean gero eta txikiagoa da, eta ustiapeneko soberakin gordinera gero eta handiagoa.

Lanaren errentek aberastasunean duten partehartzea gero eta txikiagoa denez, patronalak eta administrazio publikoek erabiltzen dituzten argudioetako bat baliorik gabe geratzen da. Haiek diotenez, ekonomiaren aldi berriari aurre egin nahi badiogu, langileen ekarpena soldaten neurrizko igoera izan behar da.

Baina bistakoa da soldatak ez direla izan ziklo ekonomiko berriaren bultzagileak. Onartezina da, beraz, ziklo berriaren ondorioak langileei leporatu nahi izatea; are onartezinagoa kontuan hartzen badugu lanaren errentek partehartzearen etengabeko galera izan dutela, hazkunde-garaian hazi beharrean.

Azken batean, hazkunde ekonomikoko aldiak ondorio txarrak ekarri dizkio langile jendeari, soldatapekoek pisua galdu baitute aberastasunaren banaketan, enpresaburuen eta kapitalaren errenten mesedetan.

